

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/3/2 | 359



🌀	Garbiñe Biurrun eta Begoña Aristi
🌀	Garabideren azken lana kalean
🌀	Martxoa, Euskal Herriko historia
🌀	Kontra
🌀	Maria J. Lopez, neurozientzian doktorea

Eskale,
ezinbestez eta
duintasunez

🌀 Iñigo Telleriaren solasean

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

TOLOSA
Kondeko Aldapa, 5
943 - 67 00 40

VILLABONA
Larrea Polg., 34 - 1
943 - 69 48 73

LARRE-GAIN

Bertako sagarrarekin
egindakoa



Larre-Gain baserria, Ereñozu Auzoa. 20.120 Hernani
Tel. 943 55 58 46 - Fax. 943 55 58 46

SUPER EKO
SUPERMERTATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua



Lagun Aro-ren partidarako,
VIP gunean, 2 sarrera
bikoitza zozketatzen dira.

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa

betaurreko
graduatuak

mó
kristalak barne

47€

Ekimena hau baliagarria izango da 2013/02/29ra arte.
Kontuz itzazu optikan, kargamener egonartekak.
Ezingo da plaza beste promozio batzuekin.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefona: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzio@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarteak, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, losu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia
Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala
AZALAK
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketak, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegolan, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Eskale ezinbestez baina duintasunez

Tolosako kaleetatik barrena paseatzen edo San Frantzisko kaleko Kutxaren bulego zaharreko eskaileratan eskean egoteagatik, ezagun bilakatu dira Silverio Veiga eta Marta Maria Tarno. Duela hiru urte ingurutik Tolosan bizi dira eta, beraien esanetan, "gustura sentitzen gara hermen". Kaletik ateratzeko aukera baten bila dabiltza.

8-11. orrialdeak

Egoera ekonomiko jasanezinean den Ibaialde Ikastolako zuzendari ibartarrak, erakunde nafarren axola gabeziak ito-larria areagotzen duen heinean, Euskal Herri osoko elkartasun uholdea jaso du.

Elkarrizketa: Iñigo Telleria

14-16 orrialdeak

⊗	Irtziaren leihoa: Garbiñe Biurrun eta Begoña Aristi	4-5
⊗	Normalizazioa: Garabideren azken lana kalean	6-7
⊗	Eskualdeko albisteak: Martxoak, Euskal Herriko historia ezagutzeko hilabetea	12-13
⊗	Zintzilik: Kontra	17
⊗	Kultura: Maria J. Lopez, neurozientzian doktorea	18-19

Lan erreforma



Garbiñe Biurrun Mancisidor
Epailea

4 Langabezia da, inolako zalantzarik gabe, krisi ekonomikoaren ondoriorik gogorrena. Pertsona talde batzuk jasaten dute bereziki arazo hau eta guztiz azpimarratzekoa da gazteen artean dagoen langabezi kopurua: %50a 25 urtetik beherakoen kolektiboan, hain zuzen ere. Bestalde, desberdintasun sozial injustua da langabeziaren eraginik larriena.

Gure gizartean horrelako desberdintasunak areagotzen ari dira: egunero galtzen dira lanpostuak eta egunero murrizten dira lan baldintzak. Egunetik egunera pobreagoak gara orokorrean eta etorkizunerako aukera gutxiago dugu. Gauzak horrela, argi dago larrialdi baten aurrean gaudela eta neurri zorrotzak eta sakonak hartu behar direla enplegua sustatzeko. Baina argi ez dagoena da, hain zuzen ere, zein diren neurri horiek.

Alderdi Popularraren Gobernuak erabaki du zer pauso

eman behar den langabezia geldiarazteko eta enpleguari aukera bat emateko. Baina, egin duen aukerak, kritika besterik ez du jaso. Zergatik?

Nik nire kritika egingo dut, hainbat eragile sozialek egindakoarekin bat. Nire iritzi, 3/2012 Errege Dekretu Legean –hau da, komentatzen ari naizen lan erreformarako arauan– jasotzen diren neurriak lan zuzenbidearen eta lan erakundeen aurka 1978tik hona inoiz ezagutu den erasorik larriena da –eta ezagutu ditugu erasoak, noski–. Niretzat, erreforma hau atzera pauso handi bat da langileriaren esku-bideentzat arrazoi hauengatik:


- a) alde batetik Errege Dekretu Legearen bidetik doa erreforma, eragile sozialekin negoziatio serio eta sakon bat saiatu gabe. Halere, hau ez da gauza berria, Alderdi Sozialistak bide bera erabili zuen eta;
- b) erreformak ahaztu egiten ditu lan zuzenbidearen helburuak –horietako nagusia lan harremanen desoreka tradizionala berdintzea delarik–;
- c) erreforma honek ezingo du enplegua sortu, aurreko erreformek ezin izan zuten bezala –bestela, gogoratu besterik ez dugu Gobernu Sozialistak 2010ean egin zuen erreforma eta bere eragin positibo eza–; alderantziz, 2010eko erreformak enplegua galtzen lagundu du, ezagutzen diren datu guztien arabera;
- d) erreforma honen bitartez, enpresaburuei ematen zaizkie lan harremanaren zuzendaritza absolutua eta lan baldintzak ezartzeko eta aldatzeko ahalmena –lanpostuak aldatzeko, lanaldia banatzeko, mugikortasun geografikoa erabakitzeko...–;
- e) arau berri honek baztertu egiten du arlo bakoitzeko hitzarmen kolektiboaren osotasuna eta baimentzen du enpresa bakoitzak itun horretatik alde egitea eta lan harremanen bilakaera gutxiengo arau kolektiboetatik urruntzea;
- f) enplegua lortzeko bidea ere aldatzen da: merkatu pribatuaren kokatzen da baita ere, aldi baterako laneko enpresei horretarako baimena eman ez eta arlo honetan zerbitzu publikoen betekizuna argalduz;
- g) ekintzaileei laguntza emateko kontratu mugagabe berriak urte beteko probaldia finkatzen du, epe horretan enpresaburuak kontratua amaitutzat eman dezakeelarik, inolako kalte ordainik ordaindu gabe;
- h) kaleratzeen arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak eta ekoizpenezkoak erraztu egiten dira eta, bide horretatik, kausa horiek aztertzeke ahalmena mugatzen zaie epaitegiei;
- i) azkenik eta laburbilduz, erreforma hau Espainiako Konstituzioan aitortzen den hainbat eskubideren aurka doa –lanerako eta negoziatio kolektiborako eskubideen aurka, batez ere– eta areagotuko ditu gure gizartean gertatzen diren desberdintasunak.

Artzainak jipoitzen ari dira

Artzainen artean, badira batzuk esnea industriari saltzen dietenak, gero honek gazta egin dezan. Industriak esnea ez diela bilduko mehatxua egin ohi die eta zenbait kasutan bete ere bai. Esate baterako, iazko kanpainen industriak ez zuen esnerik jaso, argudiatuz, ez zuela behar. Hori dela medio, esnea bota egin behar izan zuten. Are gehiago, industriak esnea jasoko diela adierazten dienean ere, ez die zehazten zein prezioan erosiko dien. Iazko kanpainen gertatu zen eta aurtengoan ere berdina gertatzen ari da: industria esnea biltzen ari den arren, artzainek ez dakite zein prezio ordainduko dien.

Prezioa zein izango den ez jakiteaz gain, noiz ordainduko dieten ere ez dakite. Sarritan 120 egunetara ordainduko dietela esaten diete, baina gero ez dute hitzik betetzen. Iazko kanpaina oraindik ere ordaintzeke dute: Aldanondo enpresak esaterako, 350.000 eurotik gora zor die artzainei. Bien bitartean, ekoizpen kostuei aurre egin behar diete, eta ondorioz, askok ekoizteari utzi behar izan diote: azken urtean 70 artzainek utzi dute.

Egoera honen aurrean artzainek elkarlanean eta kolektiboki ekimenak martxan jarri dituzte administrazioaren laguntzarekin. Industria, ordea, proiektu kolektiboan



Begoña Aristi
EHNEko kidea

5 Ardi esne industria artzainak jipoitzen ari da. Artzainek etengabe salatu dute bizi duten egoeraren larritasuna, euren ekonomia, sarritan familiarra dena, industria itotzen ari dela. Horren adibide izan zen pasa den otsailaren 14an Aguraingo Aldanondo enpresaren aurrean egin zuten protesta: hainbat esne-marmita isuri zituzten bertan.

aurka dago, izan ere, hark nahi duena artzain bakoitzari banaka tratatzea baita eta baldintzak inposatzea. Finean, ardi-esne industriak artzainak nahi erara erabili nahi ditu. Hori gutxi balitz, industriak artzainen irudia darabil negoziatio egiteko “comprometidos con nuestra tierra” bezalako leloak erabiliz. Nola uler dezakegu lelo hori lurrarekin lotura dutenak itotzen ari direnean?

Datozen egunetan industriak jarrera aldaketarik agertzen ez badu, EHNE sindikatuak mobilizazioekin jarraituko du artzainekin darabilen maltzurkeria salatzen.

“Hedabideak. Euskararen Berreskuratzea (III)”, Garabideren azken lana kalean

Garabide Elkartek euskararen berreskuratzearen inguruko hirugarren hausnarketa eta azterketa lana kaleratu berri du. Oraingoan hedabideak izan ditu hizpide euskararen berreskurapen esperientzia hegoaldeko jatorrizko herriekin konpartitzeko sorturiko elkartek.

Erredakzioa

Liburu eta DVD formatuan kaleratu da euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Garabidek zehaztutakoaren arabera, lanaren helburua ondorengoa da: “hizkuntza gutxituen biziberritzean hedabideak izan dezaketen eragina aztertzea, euskararen esperientzia ardatz harturik”.

“Hedabideak. Euskararen Berreskuratzea (III)” dvd-liburua “Euskararen Berreskuratzea” proiektu zabalaren baitan kokaturik dagoela kontutan hartzekoa da. Lehenengo lana, orokorra izan eta bertan aztertu ziren euskararen biziberritzearen giltzak

–hezkontza, hizkuntzaren corpora, hedabideak...-. Bigarren lana, lehen lan monografikoa bihurtu zen; Hizkuntzen Estandarizazioa aztertuz. Hirugarrena, lehen zehaztu bezala, hedabideei dagokion da.

Hartzaileari dagokionean, Garabidek zehaztu bezala, “hartzaile nagusia hizkuntza gutxitudun komunitateak dira baina ez bakarrik. Materiala tresna egokia izan liteke belaunaldi gazteenei edo gure herrira etorri berriei gure nortasunaren ardatz nagusietako baten ibilbidea eta iragan hurbila transmititzeko ere”.

Izan ere, euskararen berreskurapenaren esperientzia erreferente bihurtu da hainbat hizkuntza komunitaterentzat. Garabide aimara, ketxua, mapuzugun edota hizkuntza maien alde lanean diharduten erakundeekin elkarlanean aritzen da.

Gauzak honela, Garabidek kanpotik jasotako eskaerari jarraiki eta euskararen esperientzia jasotzen zuen materialik ez zegoela probesturik, lanari ekin zion.

Lanean jardundakoak

“Hedabideak. Euskararen Berreskuratzea (III)” liburua-
ren koordinazioa Alberto Barandiarani egokitu zaio, aditu ezberdinen laguntza-

rekin batera; Lorea Agirre (HUHEZI), Aitor Zuberogoitia (HUHEZI), Andoni Barreña (Unesco Katedra), Elixabete Garmendia (EITB), Xabier Letona (Argia), Iñigo Iñurrategi (HUHEZI-Garabide), Jon Sarasua (Garabide), Urko Kolomo (Garabide) eta Miren Artxete (Garabide).

Ikus-entzunezkoari dagokionean ordea, Argiak ekoitzi eta Maialen Sarasuak egin ditu errealizazio lanak. Berekin batera, dokumentaleko parte hartzaileak Pello Zubiria (Argia), Irene Arrarats (Berria), Mikel Bujanda (Euskalerrria Irratia), Iban Arantzabal (Goiena) eta Lorea Agirre (HUHEZI) izan dira.

Lanaren mamia

“Hadabideak. Euskararen Berreskuratzea (III)” lana bi galderei erantzuna ematen ahalegintzen da, Garabidetik zehaztu bezala: “Zergatik dira garrantzitsuak hedabideak hizkuntza baten biziraupenerako? eta Zer du Euskal Herriak emateko arlo honetan?”.

Liburu eta dokumentalak euskal prentsaren historiari erreparatzen dio, baina zergatiari atentzio gehiena eskainiz. Bidea zergatik egin den azaltzen du lanak, beste herrietako hizkuntza komunitateentzat baliagarria izan dadin.

Bertso zakutoa Lizardin

Galtzaundi Euskara Taldeak eta Lizardi Elkartek elkarlanean BERTSO ZAKUTOA antolatatu dute Lizardi Elkartearen, datorren martxoaren 16rako, ostiralerako. Arratsaldeko 21.00etan hasita afaria eta zakuto bete bertso izango da Lizardin, bilduriko guztiak elkarrekin kantatzeko.

Sarrerak salgai egongo dira datorren martxoaren 5etik, astelehenetik, aurrera Galtzaundiko bulegoan (Nafarroa etorbidea, 6 behea) eta Xirimiri eta Orbela tabernetan 25 euroren truke.

Bertso ezagun eta ezezagunak abesteko aukera eskainiko dute Galtzaundik eta Lizardik Antton Iztueta altzotarraren

zuzendaritza-pean. Zakutotik atera eta jendearen aho-belarrietan ipiniz, letra eta irudiak nahastuz, inor ez da ixilik geratuko. Aspaldiko bertsolarien (Bilintx, Xenpelar, Txirrita, Pello Errota...) eta gaur egungoen (Lizaso, Lujanbio, Egaña, Peñagarikano...) bertsoak izango dira kantagai.

Gipuzkoako farmazien aplikazioa euskaraz smartphone bidez eskuragarri lehenengoz

Gipuzkoako Sendagaigileen Elkartek (GSE) gipuzkoarrei eta bisitariari Gipuzkoako farmaziei buruzko informazio guztia beren smartphone bidez eta inongo gasturik gabe eskuratzeko aukera eskainiko dien aplikazio berria aurkeztu du.

Sakelako telefono modelooren arabera, erabiltzaileak aplikazioa deskargatzeko 4 bide ditu: Bere nabigatzailean <http://m.cofgipuzkoa.com> web mugikorren

helbidea sartuta, bata; informazio triptikoetan eta farmazietan jarritako txarteletan eskuragarri dagoen QR edo NFC kodearen irakurketaren bidez, bigarrena; Android Market edo Apple Storeren bidez, bestea; eta 215800 zenbakira FARMA hitzarekin SMS bat bidalita, azkenik. (SMSaren gastua 0,15 euro + BEZa + lotura tarifa).

Behin aplikazioa sakelako telefonoan kargatu eta instala-

tuta, kokapena GPS-aren bidez antzematen du erabiltzaileak eta “Nigandik hurbil” kutxatilan farmazia hurbilenak zeintzuk diren erakusten dio, irekiak berdez eta itxiak gorritz markatuta. Joan nahi duzun farmazia aukeratuakoa, aplikazioak hari buruzko datuak ematen dizkizu (zerbitzuak, telefonoa, etc) baita zein distantziara dagoen eta bertara iristeko gomendatutako ibilbidea ere.



Mahala
Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

CDI Informatika
Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

COMERCIAL ISASU XXI S.L.
INDUSTRIARAKO HORNIDURAK
Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

Arteka
ESKULANAK
Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

R A K U
Arostegieta kalea, 2 - Tolosa



Eskale, ezinbestez eta duintasunez

Tolosako kaleetatik barrena paseatzen edo San Frantzisko kaleko Kutxaren bulego zaharreko eskaileratan eskean egoteagatik, ezagun bilakatu dira Silverio Veiga eta Marta Maria Tarno. Duela hiru urte ingurutik Tolosan bizi dira eta, beraien esanetan, "gustura sentitzen gara hemen". Kaletik ateratzeko aukera baten bila dabilta.

8

Iñaki Azkarate / Igor Mujika

Egunez egunekoari aurre egiteko aritzen dira eskean. Tarnoren hitzetan, ordea, beti ez dute nahikoa lortzen: "goiz guztia bertan egon eta 60 zentimo lortzen dira batzuetan. Besteetan, 10 euro,... Nahikoa ateraz gero, jan beroa jaten dugu. Bestela, ogitarteko bat". Veigak gaineratu duenez, "ni familia apalekoa naiz. Nire senide gehienak etorkinak dira eta egunean egunekoarekin bizitzen ikasi dugu. Gehiago izanez gero, gorde egiten dugu. Izan ere, hurrengo eguneko gosarirako ere zerbait behar izaten da".

Lantxoren bat ateraz gero, bi aldiz pentsatu gabe egiten dute. Esku onekoa da Veiga eta pintore lanetan, sukaldeak muntatzen,... aritu izan da. Esaterako, gremioen koordinazioaz arduratzen zen enpresa batentzat egin zuen lan duela lau urte in-

guru, Iruñean. Egun batetik bestera, ordea, enpresa itxi egin zen. Diru sarrerarik gabe alokairua ezin ordaindu, eta kalera bota zituzten. Hala azaldu digu Veigak: "etxe batean ginen, lana genuen baina bat batean enpresako jabea desagertu egin zen. Duela lau urte, urtarrilaren 2an, izan zen. Lanera joan nintzen eta han ez zen inor azaldu. Soldatarik gabe, alokairua ezin genuen ordaindu eta, gainera, alokairuko sarrera,... ordaintzeko bankuarekin zorduta geunden. Egun batetik bestera kalean aurkitu ginen".

Kalean lo egitea tokatu zitzaion egun "gogorra" go-goan du Veigak. "Etxetik bota ostean, lehen gaua Iruñea ondoko Orkoien herrian pasa genuen. Ez genuen kanpinik ere. Kartoi mordo bat bildu eta koltxoi bat egin genuen, hezetasunetik ba-

besteko. Gau hartan ez nuen lorik egin. Hau azkena da!, pentsatu nuen. Sekula ez ginen horrela egon. Kanean egon izan gara baina lanen bat beti izan dut eskuartean. Orain ez dugu ezer! Kanean pasa genuen lehen gauetan asko pasa zitzaizkidan burutik,... Ezin duzu imajinatu ere egin! Okerrean pentsatzen duzu".

Ordu arte sasoikako fruituak biltzen aritzen ziren han eta hemen: Andaluzian, Valentzian,... eta baita ere Bizkaian, kiwiak bilduz. Hala ezagutu zuten elkar. Silverio Veiga Asturiasen zen eta bertan ezagutu zuen Marta Maria Tarno, duela hogeitau urte. Asturiasko Figüeirako ostean, lehen gaua Iruñea ondoko Orkoien herrian pasa genuen. Ez genuen kanpinik ere. Kartoi mordo bat bildu eta koltxoi bat egin genuen, hezetasunetik ba-

euro genituenean eta euro bakarra izan dugunean".

Hotza, hezetasuna eta tentsioa

Tolosara, berriz, duela hiru urte inguru etorri ziren. Benta Haundin egin izan dute lo orain gutxi arte. Kanpin baten babes hutsa izanik, hotza eta hezetasuna lagun izan dituzte. Baita ere tentsioa.

Izan ere, kalean bizitzeak arrisku asko ditu. Hala azaldu digu Veigak: "sasoikako lanak egin dituen baten esperientziatik esan ahal ditzut: duela urte batzuk arte lasai egin ahal zen lo kalean baina, orain, alkoholarekin, drogekin,... arazoak dituzten asko dago kalean eta ezin zara inorekin fidatu. Nor edo nor gerturatzean beti zeharka begiratu behar diozu, ez





Ezin dituzte begi artean ikusi. Izan ere, Veigak aitortu digunez, "nire familia itsasokoa da eta, askok, edanari eman izan diote. Familian izan ditudan esperientziengatik, alkoholarengandik urruntzea erabaki nuen. Ezin dut ikusi ere egin. Usaintze hutsarekin, berarengandik urrundu egiten naiz".

Garbitasuna eta kalean bizitzearen esteriotipoarekin ere apurtu dute. "Behartsua izateak ez du zerikusirik zikinak izatearekin. Benta Haundin bizi izan garenean ere goizeko 06:00etan esnatzen ginen eta, orain bezala, gure gorputza garbitzea izaten zen lehen lana".

Gosaldu ostean esertzen dira Kutxaren egoitza zaharreko eskaileratan eta, "beti berdina esaten dugu: etor dadila etorri behar duena", Tarnoren hitzetan. Iazko abenduaren 25ean pertsona batek 100 euro bota zizkien. Hala esan zion egun hartan Silverio Veigak Marta Maria Tarnori: "gaur dutxatu egingo gara eta ohe bero batean egingo dugu lo". Pentsio batera joan eta beraiantzako "gaurik ederrenetarikoa" izan zena pasatu zuten, "nahiz eta jakin hurrengo egunean berriro kalean jarraitu beharko genuela", Vegak esan digunez.

Kalean bizi behar izatearen ondorioz, ezagun dituzte Gipuzkoako aterpetxeak. Tolosako Abegin, esaterako, 3 hilabetean 8 egunez lo egiteko, dutxatzeko eta afaltzeko aukera izaten dute. Asko es-

kertzen dute aukera hori izate. Izan ere, Veigaren iritzian, "bizitzan detaileek asko balio dute. Txanpon batek jatea bermatu ahal dizu, aterpetxeetan bolondres lan egiten duten pertsoneri esker berotasunean lo egin, jan, dutxatu eta arropa garbitu ahal duzu,..."

Aldiz, ez dituzte instituzioen dirulaguntzak jasotzen. Veigaren hitzetan, "ez dut nahi ahoa isiltzeko laguntzarik. Edozein herritarrek bezala, lan bat nahi dut, aukera bat, bizitza berregiteko".

Ilusioak

Eta, duela hilabete inguru, momentuz kalean lo egiteari uzteko balio izan dien laguntza jaso zuten. Hala esplikatu digu Veigak: "20 zentimo bota zizkigun tolosar batek poltsara. Honen kutxa ere nahiko hutsa dago, hausnartu nuen. Gero itzuli egin zen eta, kafearentzako behar ote du?, pentsatu nuen. Baina lokal bat zuela eta bertara joatea eskaini zigun. Euritik babes-teko txoko bat eskaini zigun, lau pareta hotzetik babesteko eta, garrantzitsuena dena, ohe bat lurreko hezetasune-

tik ihes egiteko. Horrek ez du preziorik. Izugarria da guregatik egin duena eta, horregatik, oso eskertuta gaude".

47 urte dituzte Veigak eta Tarnok eta egunen batean kaletik aterako direnaren esperantza ez dute galdu. "Esperantzarik ez bagenu,.... Aurrera egiteko, alaba bat izateak asko lagundu digu", Tarnok aitortu digunez. 14 urte ditu eta Iruñean bizi da bera. Sarri joaten dira alaba bisitatzera baina, argi dute, "gauden egoeran gurekin ezin da egon. Gure alabak ez daki zein egoeratan gauden. Sasoiko lanetan gabiltza, lantxo bat atera zaigu eta hara joan behar dugu,.... esaten diogu. Umetxo bat da eta ezin diogu esan kalean gaudenik. Ez gaitu sekula motxilarekin ikusi. Iruñeara iritsitakoan autobus geltokiko leihatilan uzten ditugu gauza guztiak".

Eta, Tolosara bueltan, etxean sentitzen dira Veiga eta Tarno. "Bueno, etxean gaude", esaten dute ironia handiarekin Tolosako autobus geltokira iritsitakoan. Izan ere, Galtzaundiri adierazi diotena-gatik, gustura sentitzen dira

bertan. Gustuko dute tolosaren izaera, bertako klima eta ingurunea eta, tolosarrak izanik, arratsalde askotan Villabonara nahiz Alegira eramaten duten bideetatik barrena galtzen dira. Tarnoren hitzetan, "Altzora daraman bidea oso gustuko dugu".

Aurrera begira dituzten ilusioez galdetzean hala azaldu dute: "50 urtetara goaz. Bizirautea da gure ilusioa, txoko bat eta lan bat izatea aurrera egiteko. Tabakoa da dugun bizio bakarra. Luxurik ez dugu nahi, gastatzeagatik gastatzea ergelkeria delako. Bizitzeko oinarrikoaren bila gabiltza. Apal bizitzen ikasi dugu eta horrela gustura sentitzen gara".

"Gizatasunik gabe diruaz baino ulertzen ez duten banpiroek" kolpatutako maitasun istorioa da beraiena, agian, nor edo noren gizatasunak oinarriko eskubide diren etxebizitza eta lanarekin gozatzeko dioten maitasun istorioa. Beraiek, behintzat, horretarako borrokatzen dute. Eta, borrokak esperantzarako bideak zabaltzen ditu. ©



Garaian garaiko janariak eta arraikietan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza

Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.

Baratzondo D 26. Ibarra

Tel.: 943 671 590.

Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

dakizulako nondik aterako zaizun. Kalean gauza asko ikusi eta ikasten dira eta zurea defendatzeko adi egon behar duzu".

Mundu oso bat topa daiteke kalean eta bakoitzak duen

egoera eta bizitzari aurre egiteko modua ezberdinak dira, biek ala biek azaldu digutenez: "arezko mendi batean gaude eta aukera baten bila gabiltza. Horretarako are guztia mugitu behar badugu ere, egin

egingo dugu. Batzuk, mendi hori igaro gabe zuzenean salto egiten saiatzen dira baina halakoetan arazoak sortzen dira". Drogek -alkoholak, barne-, abariziaz,.... sortzen dituzten arazoez mintzo dira.

Kalean bizi behar izatearen ondorioz, ezagun dituzte Gipuzkoako aterpetxeak. Tolosako Abegin, esaterako, 3 hilabetean 8 egunez lo egiteko, dutxatzeko eta afaltzeko aukera izaten dute. Asko es-

Gozotegia Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

Euskal Herriko historia ezagutzeko hilabetea



Bai Euskal Herriarik Euskal Herriko historia ezagutzeko hitzaldi sorta antolatu du martxoko astelehenetarako, Nafarroako erresumaren konkistaren 500. urteurrenaren harira. Unai Igartua eta Maialen Jauregi aritu dira hitzaldien nondik norakoaz eta udazkenean martxan jarri zen Tolosako Bai Euskal Herriari taldeaz Galtzaundirekin hitz egiten.

Erredakzioa

1512-2012 Nafarroako Erresumaren Konkistaren 500 urte beteko direla eta martxoa Euskal Herriaren historiara gerturatzeko hila-betea izango da Tolosan Bai Euskal Herriari taldearen ekimenez eta Anoeta, Villabona, Zizurkil, Asteasu, Ibarra eta Tolosako eragileek bultzatuta. Guztira lau hitzaldi eskainiko dituzte adituak diren lau hizlariak, Tolosako Kultur Etxean, martxoaren 5, 12, 19 eta 26an, arratsaldeko 19.00etan hasita.

Unai Igartuak dioen modura honako hitzaldiak martxan jartzearen abiapuntua, behar-rean datza: "faltan botatzen ditugu honelako hitzaldiak, bai gure barnera begiratzu eta baita gizarteari begiratzu. Askotan gehiago dakigu kanpoko herrialdeen bilakaerari buruz gureaz baino. Gerra Zibila eta Trantsizioa oraintxe pasa berri dira baina gazteenei urruti gertatzen zaizkie. Tankerako gaiak berritza eta jendearekin konpartitza beharrezkoa da".

Hizlariak aukeratzeko garaian hizkuntza hartu dute oinarri, euskaraz eskaini ahal izatea, alegia. Bestetik Maialen Jauregik dioen modura, Nafarroa Bizirik bitartez eta Tolo-

san Juantxo Agirre Mauleonen laguntzarekin zenbait kontaktu ere eskuratu dituzte hizlariak lotzeko garaian.

Alvaro Arrizabalagak, historiako doktorea EHU-n, "Historiaurrea Euskal Herrian" hitzaldiari ekingo dio martxoaren 5ean. Bere aurkezpenean kronologia desberdinetan zehar ibilbide historikoa jarraituko du hizlariak, gizarteetan ematen diren eraldaketa kritikoak azpimarratuz.

Hurrengo hitzaldia martxoaren 12an eskainiko du Patxi Abasolok, Nafarroa Bizirik elkarte kideak. "Orreagatik Amaiurrera: Nafarroako konkista" izenburupean Nafarroako Erresumaren bilakaera aztertuko du Abasolok, eta mendeetan pairatu behar izan zuen konkista prozesu luzean sakonduko du.

Iñaki Egañak, historialari eta idazleak hartuko du martxoaren 19an bere txanda. "Martzinadak, Karlitadak, Gerra Zibila eta Trantsizioa" izango da adituak jorratu beharrekoa. Euskal Herriko historiako orain gutxiko pasarte bilakaera aztertuko du Iñaki Egañak. Behin Nafarroako konkista igarotakoan izan ziren Martxinadetatik hasi, Karlitadak gogoratu eta Gerra Zibila eta Frankismoaren bilakaera aztertuko dira martxoaren 19ko saioan.

Azkenik, azken astelehenean, martxoaren 26an, "Trantsizioa Euskal Herrian" izenburuarekin Fito Rodriguezek, EHUko irakasleak eta idazleak, trantsizio garairen deskribapena egitearekin batera, hausnarketarako betari helduko dio.

Guztira lau hitzaldi eta lau hitzun. Guztietan parte hartu ahal izateko Bai Euskal Herriarik bonoa salgai jarri du Tolosako Rakun, Villabonako Iru-Aldetan eta Ibarako Subegin 20 euroren truke (ikasle, langabetu eta jubilatuak 8 euro). Hitzaldi bakarrera joan ahal izatekotan tolosaldea@baieuskalherriari.org helbide elektronikoaren bitartez edota 652715800 telefono zenbakiaren bitartez informazioa eskuratzeko aukera dago. Izena emateko beste modu bat, zuzenean 3035.0060.44.0600137003 kontuan diru-sarrera egitea litzateke.

Tolosako taldea udazkenean sortu berria

Bai Euskal Herriari ekimena 2000. urtean martxan jarri zen EHNA nortasun agiriaren kanpainarekin batera. Ondoren zenbait herrietan taldeak desagertu eta besteetan indartu egin ziren. Azken hauetakoen adibide da Ibarako taldea, Tolosako errentzeari aurrerantzean erreferentzia izan daitekeena. Izan ere, Bai Euskal Herriari



talde batek jorratu beharreko gaiak anitzak dira; nortasun ikurrak, migrazio eta aniztasuna, egutegi propioa, ehna, ikurriñaren erabilera, selekzioak... guztiak nazioaren ikuspegia bultzatzeko baliagarriak.

Maialen Jauregik, Tolosako Bai Euskal Herriariko kideak, dioen bezala Tolosako Bai Euskal Herriari udazkenean osatu zen Ibarako taldeak bultzatuta, Tolosa Tolosaldeko zentroa izanik, aproposatzen ikusten zuten zuten bertan taldea osatzea: "jendea kontaktatzen hasi ginen eta oso harrera ona jaso genuen, egun zazpi bat lagun gaude". Talde hasi berria izanik eskualdeko jendeari ere dei eginen diote taldeko partaide bihurtzeko: "interesatuta dagoen jendeari harremanetan jartzeko gonbi-

dapena egitea badago, bakoitzak eskaini dezakeena eskaintzeko. Tolosakoa sortu berria dago eta martxa hartu beharra dauka".


Taldearen egitekoak hiru alor nagusietan errotzen direla zehaztu du Maialen Jauregik: Euskal Herriko historia bultzatzea, euskal lurraldetasuna bultzatzea eta euskal identitatea eta nortasunarekin lan egitea. Ildo nagusiak hauek izanda ere, Unai Igartuak, Ibarako Bai Euskal Herriari taldeko kideak, gogoratu egiten du tokian tokiko talde bakoitzak bere martxa duela: "ez da berdina Villabona batean izan dezakeen indarra edo Anoeta batean izango duena, bakoitzak bere martxa segitzen du, bakoitzak bere nortasuna du".

Esaterako, Maialenek aipatu bezala Tolosako taldeak, Tolosaldeko zentroa izanda, immigrazio eta aniztasunaren alorrean lan egiteko beharra aurreikusten du. Honela, eskualde mailan sortutako Bai Euskal Herriari talde ezberdinen artean osagarri izatea bilatuko dute aurrerantzean talde ezberdinek.

Euskal Herriko historia ezagutzeko hitzaldi sorta, aukera egokia izango da sortu berri den taldeari bultzada emateko. Maialenek horrela aurreratzeko du: "planteamendua pixkanaka joango da. Egin dugun apusturik fuertea hitzaldiena izan da, Ibarako taldearen gidaritzapean. Ondoren hurrengo urtera begira hasiko gara lanean, urte osoko plangintzari begira jarriko baikara".



Korreo. 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA. 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347



Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712



Korreo Kalea, 3
Tolosa

Iñigo Telleria

Ebro ibaiaren ertzean euskararen kimuak landatzen



Egoera ekonomiko jasanezinean den Ibaialde Ikastolako zuzendari ibartarrak, erakunde nafarren axola gabeziak itolarria areagotzen duen heinean, Euskal Herri osoko elkartasun uholdea jaso du. Lodosako baratze emankorren artean kokatutako ikastolaren egitasmoan euskararen etorkizuneko uzta emankorrak jasotzeko itxaropenaz lanean ari dira, ingurune erabat erdaldunean eta lan baldintza gordinetan hainbat hilabete soldatarik kobratu gabe.

Felix Aiestaran

Aipa itzazu Ibaialde Lodosako ikastolaren ezaugarriak.

Ibaialde ikastola Lodosako herriaren kanpoaldean aurkitzen da, Sartaguda bidean. Bertan 74 ikasle ditugu, haurtzaindegitik hasi eta LH 6 arte. Ikasle gutxi ditugunez gela bateratuak ditugu, hau da zikloka banatuak. Bertako irakaslegoa



9 pertsonen osatzen dugu, 5 tutore, laguntza gela, ingeleseko irakaslea, haurtzaindegian beste bi irakasle ditugu. Idazkari bat ere badugu noski.

Inguruko herrietako ikasleak biltzen al ditu?

Lodosako ikasleak baditugu, baino eskualdeko ikasle gehiago hartzen ditugu. Herri hauek ikasleak etortzen zaizkigu: Andosilla, Carcar, Sartaguda, Lodoso, Alcanadre (Errioxa), Mendabia, San Adrian eta Pradejon. Eskualde honetan geurea da ikastola bakarra, ez dago euskaraz ikasteko beste aukerarik.

Zertan datza ikastolaren zorra?

Zor handia dugu, hasteko

eraikinaren mailegua ordaintzeko. Nafar gobernuaren konzertazioek ere ez digute batere laguntzen, konzertazioek ikastola txikiei kalte egiten diete, gelaka eman beharrean haur kopuruaren arabera ematen baitira, 2 irakasle ditugu konzertatu gabe. Azkenik garraioa, autobusak lehen aipatutako herri guzti horietatik egiten du ibilbidea haurren bila; kostea handia da eta ez dugu garraioarengatik inongo laguntzarik jasotzen.

Zenbateko eragina du "zona no vascofona"-n egoteak?

Euskararen legearekin nafar gobernuak "zona no vascofona" ikastolei ez die inongo diru laguntzarik ematen. Lehen

aipatutako konzertazioak eta garraiorako laguntzarik ez jasoteak kalte handia egiten digu.

Nafarroako instituzioekin negoziatzea erraza izan al da?

Partidu politiko ezberdinekin bildu gara eta entzun gaituzte, baina nafar gobernuak entzungor egiten du euskararekin. Juntako gurasoak bildu dira Nafarroako erakunde ezberdinekin, asko mugitu dira eta beraien saiakera txalotzekoa izan da. Krisi garaian negoziaketak zailak dira, denak ere gerrikoan ondo estutua daramate.

Ikastoletako Federazioen babesaren zenbatekoa izan da?

Ikastolen federazioaren elkartasun kutxari esker jarrai-

tzen dugu bizirik, urteak atzera Nafarroako ikastolen elkartasun kutxak mantendu gaitu, baina ez da nahikoa izan.

Irakasleok nola bizi duzue lau hilabete kobratu gabe lan egitea?

Egoera deserosoa da. Gogorra da hainbeste denboran kobratu gabe egotea eta gainera ez kobratzeaz aparte, ikastola honetara datozen irakasle gehienek ordubate inguruko bidaia dute edo Lodosan alokairu bat ordaindu behar dugu. Dirua ez irabazteaz gain, dirua galtzen ari gara. 10 langileetatik 6 daude ezer kobratu gabe, besteak kontzertatuak gaude. Baina Ibaialde ikastolaren eguneroko funtzionamendua ez da batere aldatu azken 4 hilabeteetan, lanean jarraitu du mundu guztiak.

Zein elkartasun keinu jaso duzue?

Jendearen babes izugarria izan da, korreoak, bideoak, power point-ak, argazkiak, talo janak, bertsoak, giza kateak, animo mezuak, herri desberdinetan gure ikastolako kamiseten salmenta, ...benetan harrituak gaude izandako erantzunarekin, horietako asko oso hunkigarriak iruditu zaizkigularik. Orain hau dena eskertzen jakin behar dugu!!!

Euskararen kimua Ebro ertzean horren arina izanda, ikasleei gai guztiak euskaraz ematea erraza egiten al da?

Gelan egiten dugun guztia euskaraz egiten dugu, euskara



Zintzilik



Txarli Gesteira
Blogaria
txarli/berriketan.info

Ni bezala, LTD-aren mandoaren botoiari emateaz aspertuta bazaudete, ikusi interneterako eginiko ondorengo TV saio pare. Biak Euskal Herriari lotutako gaiak jorratzen dituzte. Batak umore "fiñaz" eta besteak, sakon eta serio.


Kontra



Beranduegi (<http://argia.com/multimedia/beranduegi>) Internet TV saioa. Argiak jarri zuen martxan iaz, eta asteartero izaten da sarean ikusgai. Gaurkotasun gaiak jorratzen dituzte, 10-15 minuturen bueltan ibiltzen dira saioak eta umore eta ironiaz gain, gaurkotasunaren errebaso zorrotza, analisiak, elkarrizketak, ikusleei zuzendutako lehiaketak eta askoz ere gehiago eskaintzen dute Gorka Bereziartua eta Unai Brea Argiako kazetariak.

Kontra (<http://www.kontraprograma.com>) saioak ibilbide laburragoa du, lerro hauek idazterako garaian 4 saio baitituzte sareratuak. Euskal selekzioa eta ligaren inguruan eztabaidatu zuten lehenengo saioan, zezenketen inguruan bigarrenean, Nafarroa 1512an

lelopean eginiko eztabaida saioa izan zen hirugarren sareratu. Azkena, "Euskal Herriaren independentziarako estrategiak" izenburuarekin kaleratu da. Euskal Herriaren esparruan interesgarri diren hainbat gaien inguruan sakontzeko aukera ematen duen programa da. Saioak Nerea Alias telebista aurkezleak gidatzen ditu. Eztabaida saio bakoitzean, gaiaren alde eta kontrako argudioak mahai gainean jarriko dituzten



gonbidatuak aurkituko ditugu 45 edo 90 minutu inguru irauten duten eztabaidetan.

Adibidez, orain arte, Joseba Asiron, historia doktorea eta irakaslea; Floren Aoz, idazlea -gai historikoen inguruko bi saiakeren egilea-; Eduardo

Escartín, historia garaikideko irakaslea -Bartzelonako Unibertsitatea- eta Catalunyako Parlamentuko PP alderdiko diputatu ohia; Román Felones, PSN-PSOeko presidentea, foru -parlamentaria eta geografia eta historia katedraduna; Jokin Zuasti, Felix Izeta, ...eta abar luze batez osatutako gonbidatuak izan dituzte.

Ikusleak, hizlarien hitzaldiak baloratu eta iruzkinak egiteko aukera du webgunean bertan. KONTRA saioak, Euskal Herriaren eta euskal herritarrentzat garrantzitsuak eta interesgarriak suerta daitezkeen hainbat gaien inguruan eztabaida konstruktiboa eta aberasgarria egitea asmo du. Kasu honetan, KONTRA eztabaida saioa Zai Zoi Bele productions ekoizle independenteak ekoiztutako programa da. Hamabostero emanaldi berri bat sareratzeko du aipatu webgunean.

Bukatzeo, bideo musikal bat ekarri nahi dut plaza honetara. Musika Giorgio Basmati eta Yon Vidaurrena da, eta

irudia Asier Arsuagarena. Animazio teknika bitxia erabili du Asierrek, "stopmotion" bezala ezagutzen da. Marrazki eskuz egin eta marrazki bakoitzari argazki bat atera, fotogramaz fotograma gero denak bata bestearen atzetik jarri eta ondoren planoz plano bideoa osatu du.

Ikusi hemen bideoa: Giorgio Basmati & Yon Vidaur "Adios, agua" <http://vimeo.com/18692886>



maila txukuna dute baina hiztegia eta aditzak dira gehien kostatzen zaiena. Txikienei asko kostatzen zaie, baina LH1etik aurrera haurrek maila ona dute. Ez da beraien ama hizkuntza eta nabaritzen da eta inguru honetan ere edonorekin komunikatzeko gaztelania erabiltzen dute. Ikastolatik kanpo gaztelaniaz egiten dute gehienek.

Herritarrek, oro har, nola bizi dute ikastola?

Herritik aparte xamar dago gure ikastola eta saiatzen gara ihauterietan, gabonetan, Santa Agedan... herrira atera eta herritarrengana gerturatzen. Batzuk ez gaituzte gustuko, baina errespetatzen gaituzte, ez dugu arazorik izan. Ihaute-rietako ostiralean herriaren dantzatu genuen, ondoren txistorra pintxoak banatu genituen eta jendea gerturatu zen. Gero herri erdian ere, apaiz eskola

eta eskola publikoa daude eta ez da erraza matrikulazioak lortzea. Ikastolara datozenek garbi dute beraien haurren hezkuntza euskaraz nahi dutela.

Gurasoen ikastolako partaide-tza handia al da?

Gurasoek ikastolako gestioa daramate. Ikastola txikia da eta zonalde honetan ikastolak ezinbestekoa da, urtean zehar egiten diren ekintzetan parte hartze handia dute gurasoek, txoznan, ikastola garbitzen, herriaren antolatzen ditugun ekintzetan, otsailaren Seko festan... gurasoen parte hartzea aktiboa da.

Zenbatekoa da Euskal Herri osotik iritsi zaizuen elkartasun uhina?

Euskal Herriaren erantzuna handia izan da, elkarte ezberdinak, ikastolak, lantokiak,

norbanakoak...jende asko mugitu da eta ekintza asko burutu dituzte, ez genuen horrelako erantzunik espero. Hala eta guztiz dena beharrezkoa izango dugu.

Sartagudan eratutako festa eguraldiak erabat mugatu zuten, ezta?

Bai, elurtearen ondorioz jende askok ezin izan zuen etorri eta autobus asko bertan beharra gelditu ziren, ondorioz etekin ekonomikoa ez da espero genuena izan. Baina beste aldetik, pozik egoteko arrazoiak ere baditugu, egin zuen eguraldia eta hotza ikusita 4.000 pertsona inguru bildu ginen eta giro ona sortu zen. Jende asko otsailaren 5ean hemen egon behar zelako etorri zen, Sartagudara etortzeko eta egoskorkeriagatik etorri ziren, jendearen saiakera eskertzeko izan zen.

Dirulaguntzak nola bidera daitezke?

Diru laguntzatarako elkartasun kontu bat ireki dugu Euskadiko Kutxan, ondorengo zenbakiarekin: 3035 0153 46 1531026051.

Nola bizi da euskalduntasuna Ebro ertzean?

Oso ezberdina da, denetik dago, jende askok ez daki euskaraz baina euskararen alde borrokatzen du. Gure ikastolako guraso gehienek ez dakite euskaraz eta herritar askok ere ez. Adibide bezala, Sartagudako festako kartelak euskaraz bakarrik egin genituen eta Lodosan itsatsi genituenean, erdaraz ez zeudela kritikatu zuen jende askok, nahiz eta euskaraz ez jakin, euskara babestu eta lagundu nahi dutela esanez. Aurtengo ere, udaletxe aldatuta egon da herriaren eta herriko talde independentista bat jarri da, gu laguntzeko prest azaldu da. ☺

18 Maria J. Lopez: "Garuna entrenatzeko gai gara"

Datorren martxoaren 9an, ostiralean, arratsaldeko 18.00etan Ibarako Kultur Etxean Maria Jesus Lopez Juez neurozientzian doktoreak "Haurren garun-garapena. Antolaketa neurologikoa ikasketa arazoei aurre hartzeko" hitzaldia eskainiko du. Ibarako Uzturpe Ikastolak antolatuta sona handiko aditu honek kasu praktikoak aurkeztu eta guraso zein irakasleentzat baliabide egokiak plazaratuko dizkie.

Naiara Roldán de Aranguiz



Jaiotzen garenetik, gizakion nerbio-sistemak urte asko behar ditu heltzeko, bizitzaren erronka ezberdinei aurre egiteko antolaketa neurologikoa egokia lortu arte. Lehen fase honetan garatzen diren erreminta neurologi-

koak, inguruarekin elkarreragin egokia behar dute bere osotasunean antolatzea lortu ahal izateko. Erreminta hauek dira haurra eskola-ikasketa aldira arrakasta berme handiagoarekin iristea ahalbidetzen dutenak. Honetaz jardun da Galtzaundi Maria J. Lopez neurozientzia doktorearekin.

Zertan oinarrituko da Ibarren eskainiko duzun hitzaldia?

Ibarako ikastolak gonbitea luzatu dit eskola porrotari aurre hartzeari buruz hitz egiteko. Guk antolaketa neurologikoaren ikuspuntutik aztertzen dugu eskola porrota. Hau da, jakin badakigu haurrak irakurtzen eta idazten ikasteko eta eskola arrakasta izateko zenbait garun erreminta antolatuta izan behar dituela, honako erremintak haurtzaro-

garian heltzen joango dira. Momenturen batean, honako erremintan heltze prozesuan edota haurren garunaren antolakuntzan arazorik egon bada, irakurri eta idazteko garaian ezin izango dio erronkari arrakastaz heldu.

Aurkeztuko ditudan erremintarik garrantzitsuenak ikusmen alorrekoak –informazio abstraktuaren prozesamendurako-, entzumen alorrekoak –fonologia-deskodeketarako- eta motor alorrekoak –espazio-orientazioa, ahoko hizkera eta jarrera-kontrola- dira. Honek guztiak, azken erreminta bat sortzen du, garuneko hizkuntza funtzioen lateralizazioa delakoa.

Hitzaldia hizkuntza erraz batean eskainiko dut; irakasle baina baita gurasoentzat ulergarria izan dadin.

Biak ala biak umearen hezkuntzan partaide nagusiak...

Haurren garun garapenean hezkuntzak ezinbesteko betekizuna du baina ume bakoitzaren garunaren ardua bere gurasoena da. Eskola-ikaskuntza eta sozializazioa betidanik eskolari egotzitako ezaugarriak dira baina ikusmen-konbergentzia eta fonologia-deskodeketa bizitzako lehen urtetan familia giroan landu beharrekoak dira.

Eskola porrota konpondu beharreko premiazko arazoa da. Hala ere, %2an baino ez du adimen-koizientean jatorria. Egiteko lan handia dago hortaz...

Bai, hala da. Gainerako arazoen atentzio arazoekin, hizkuntzarekin, zereginak ez antolatzearekin, ikasgelan gelditu egon ezinaren... harremana dute. Hauek garapen prozesuarekin zerikusia dute, lehen urtetan inguruarekin elkarreraginean umearen garuna nola garatu den, alegia.

Jaiotzerakoan arreta ez dago garatuta, haurtzaroan zehar ematen den prozesua da. Ume batek arreta arazoak izanez gero, erreminta hori ondo ez dela garatuaren adierazle da. Lan handia dago egiteko, ume horien portzentaje altu batek eskola mailan arazoak izango ditu. Hala ere, estimulazioaren bitartez, garunaren ikuspegi plastikoago batetik, eskola arrakasta bermaturik izango dute; euren inguruan gaudeenok, arazoaren jatorria antzeman eta konponbidea bilatuz gero.

Honako arazoei erro bera dute, arazoaren jatorria umearen garunean dago...

Egia esan, umeak ez du ikasten, umearen garunak baizik. Ikasketa prozesua erdiko nerbio

-sistematik zuzendurik dago.

Esaterako, guk garunaren bitartez irakurtzen dugu, ikusmen sinbolo abstraktuak deskodetzen ahalbidetzen digu. Garunaren gune hori heldurik egonez gero irakurketa burutzeko prest egongo gara; kontrakoa gertatuz gero, irakurketa arazoak izango ditugu. Hau da, gizakiak egindako oro nerbio-sistemak gidatzen du. Horregatik, nola hazten den, nola garatzen den, nola antolatzen den eta zer nolako erreminta neurologikoak erabilgarri izan behar dituen irakurtzen edota idazten jartzeko ikertzea beharrezkoa da.

Nola aurre egin adierazitako arazo eta beldurrei?

Guraso zein hezkuntza sistema kontziente dira gauzak ez doazela behar bezain ondo. Umearen garunaren garapena bizitzako lehen egunetik hasita gertatzen da. Umeen hazkuntza ondo zaindu beharreko kontua da; prozesu erabat paregabe eta errepikaezina da. Hazkuntzak garunaren egituraketa ekarriko du ondorio gisara, horrenbestez, arreta eta interesa jartzea beharrezkoa da.

Garunaren funtzio guztien garapen eta arreta oso garrantzitsua da. Ume batek irakurtzeko edo idazteko arazoak izango dituenaren adierazlerik onena, hizkuntzaren garapena da. Jende askok bi urteko umeekin hitz egiteari ez dio garrantziarik ematen, baina bi urteko ume bati hitz egiten diotzunean bere garuna antolatzen laguntzen diogu. Lehen hizkuntza abstraktuaren aldean antolatuago egonez gero, bigarren eta hirugarrenari (irakurketa eta idazketa) errazago ekingo zaie. Ume bat, inguruarekin elka-

rreragin txiroa izan duelako, hitz egiten oso berandu hasi bada, hizkuntzaren ikuspuntutik arazo ugari izango ditu.

Beharrezkoa da haurren hazkuntzaren inguruan hausnartzea eta baldintzarik egokienak eskaintzea: estimulazioa, interakzioa, emozio-ingurunea...

Orokorrean, haurren defizit egoeretan sintometan oinarrituriko tratamendua ezarri oi da, zuk prozesuaren erroari heltzea defendatzen duzu.

Hori da. Gaur egun, ume batek irakurtzeko arazoak izanez gero gehiago irakurtzeko eskatzen zaio. Irakurketa sekula ez da izan irakurketa arazoetarako tratamendua. Hau da, gaizki irakurriz gero, gehiago irakurtzeak ez du irakurketa hobetuko. Zergatik ez den ondo irakurtzen aztertu beharra dago; ikusmen arazoa ote den, fonologia deskodetzea ote den, orrialdearen espazio-antolakuntza arazoa ote den... Noski irakurketa praktikan jarri behar dela, honakoa ordea, azkenengo puntua izango litzateke, eta sekula ez prozesuaren hasiera.

Umearen arazoei erantzuna emateko garunaren plastikotasuna kontutan hartzea beharrezkoa al da?

Argi izan behar dugu 10 urteko haurren garunenean haur garapenaren %80a ematen dela. Nik haurtzaroan lan egiten dut garunaren plastikotasunik handiena orduan ematen delako. Hala ere, kontutan hartu behar da zorioenez garunaren plastikotasuna bizitza osoan zehar ematen dela, bestela ezinezkoa litzateke hemen bizirautea.

Baina, lehen hezkuntzan sartu aurreko momentuak zoragarriak

dira; izan ere, haurren garunak garun zirkuituak berrantolatze-ko gaitasun handia du, garuna entrenatuz gero, noski. Garuna entrenatzeko gai garela argi izan behar dugu.

Arazo eta defizitak dituzten haur horien guraso eta irakasleei posibilitotasun eta itxaropen mezua helaraztea garrantzitsua da.

Esan beharreko lehenengo gauza egoerak konponbidea baduela. Garuna erabat plastikoa denez, guk inguruneetik abiatuta elkarreragin dezakegu garun zirkuituak aldatzeko. Neurozientziak honakoa oso argi dauka. Egin beharrekoa, baikortasun mezua laborategietatik ikasgela eta gurasoengana helaraztea da.

Guraso askok "ume traketsa tokatu" izana eta horrekin bizi izan beharreko sentsazioa dute. Hau ez da egia; entrenamendua beharrezkoa da. Ume baten bizitzaren alor guztiak entrenatu daitezke; erritmoa, abiadura, teknika eta estrategia eraginkorrenak bilatuz. Lan handia egiteko dago eta horretan hastea beharrezkoa da.

Umeari laguntzea posiblea da, egin beharreko ordea, umea ondo ebaluatu eta arazoak non dauden zehaztea da, arazoa zein den aztertu eta horretan lan egitea da. Umearen garunaren plastikotasunean erabateko konfiantza izan behar dugu.

Hitzaldian, egunero ikasgela topatzen ditugun arazoei buruz mintzatuko gara. Izen-abizenak dituzten umei buruz hitz egingo dugu eta bertan parte hartuko dutenek euren isla topatuko dute. Arazo zehatzak aztertuko ditugu; konpondu beharrekoak hauek baitira.

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzailerak gisa lan bila nabil. Homologatutako titulu daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protesiko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubini. Egon-gela handia, bi logela, sukaldia eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Pisua salgai Erremontari kalean, 42 m² eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegietan 100 m²-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldia, sala, komuna eta trastero. Dena kanpokalde, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

Horoskopoa

Martxoaren 2tik 16ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Egunerokotasunetik ihes egiteko tentazioa izango duzu, bizitzeko era aldatu eta pasioz ekitea izango da zure nahia. Honek bere eragina izan dezake zure maitasun istorioan, bereziki aspaldikoa bada. Zure bikoteaz birmaitemintzeko aukera.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Berrito ere komunikatzeko duzun gaitasuna agerian geratuko da. Gizarteratu eta ekintza ezberdinetan parte hartzeko unea iritsi zaizu. Bikotearekin disfrutatuko duzu baina jende gehiagorekin egoteko premia izango duzue.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Oso sentikor aurkituko zara. Maite duzun pertsonen inguratuta egoteko beharra izango duzu. Osasun aldetik ez duzu kezetarako aitzakiarik izango. Umoretsu igaroko dituzue egunak.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Geroz eta energia eta poztasun gehiago sentituko duzu. Martxo osasunerako hilabete oparora izango da, orekaturik eta bereziki espiritu aldetik inspirazioz beterik egongo zara. Ekonomikoki garai hobea dagoz.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Harmonia da zure gorputzak gehien entzungo duen hitza. Gaizki-ulertuak desagertuko dira, elkarrizketak abiatzen diren garaian. Pisua galduko duzu eta horrek gazteago sentitzeko aukera emango dizu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Osasun aldetik probaren bat gailendu beharko duzu, saiatu zaitzez lasaitasuna mantentzen. Hasierako egunak lanari dagokionean lasaiak izango badira ere, egunek aurrera egin ahala lasaitasuna estres bihurtuko da.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Egunerokotasunean erreparatu beharko zenuke, eguneroko lanean, alegia. Osasuna zaindu beharko zenuke, beharrezko atsedena hartuz. Etxean duzun animaliak sorpresaren bat emango dizu.



scorpio

Urriak 23-Azaroak 22
Maitasun aferak, irudimena eta dibertimendua bat izango dira. Egunek aurrera egin ahala lanari erreparatuko diozu. Senideekin oso ondo sentituko zara eta familia arteko ospakizunen bat ere ez da faltako.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21
Familia giroa aztoratuta egongo da. Lasaitasuna mantendu eta eztabaidak ekidin itzazu. Etxeak buruko min bat baino gehiago eragingo dizu: matxuratzaren diren tresnak, berotzen ez duten berogailuak....



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20
Gatazkak ekidin beharko zenituzke. Gogoratu gainera presaka ibiltzeak ez dizula onik egiten. Diruarekin ere tentuz ibili beharko zenuke, azken aldian behar ez duzun gauzetan diru gehiegi xahutzen ari zara eta.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Egun zailak ekonomiari dagokionean. Espero ez dituzun gastuak azalduko dira. Baliabideak era eraginkorragoan erabiltzen ikasiko duzu baita dirua eskuratzeko modu berria topatu ere.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20
Helburuak eskuratzeko garaia dator, hala ere, alde zurretik lan handia egin eta gero. Bakarrik sentituko zara, izan ere galdutako pertsona hori ezin duzu burutik kendu. Malenkonía gorputzean itsatsita duzu.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte



ATE IREKIAK



www.mondragon.edu/prest

Goi Eskola Politeknikoa

Arrasate MARTXOAK 15 osteguna, 17:30

Ordizia MARTXOAK 24 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

Oñati MARTXOAK 24 larunbata, 11:00

Irun MARTXOAK 31 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Donostia MARTXOAK 17 larunbata, 10:30


902 110 436



aldama_tapia

aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



logikaline

Call center 24x7x365

| Itzulpengintza

| Telemarketing

| Ikerketa soziologikoak

www.logikaline.com

San Joan plaza z/g
20269 Abaltzisketa



MARTXOAK
6

«**Arditan**» (30')
Euskara

Azpidatziak: gaztelania
«Mountain culture» saria

«**Fly or die**» (24')
Ingelera

Azpidatziak: euskara
Mendiko kirolen film onenari saria

«**Cold**» (19')
Ingelera

Azpidatziak: euskara
Laburnetraira onenari saria



JUAN VALLEJO

«**Transantartika 2011**» (60')

MARTXOAK
7

«**Wildwater**» (30')

Ingelera / Azpidatziak: euskara
Argazki onenari saria

«**The hardest of the Alps**» (12')

Gaztelania, Ingelera, Italiara
Azpidatziak: ingelera -euskara

«**Linea Continua**» (17')

Italiara / Azpidatziak: euskara

«**The Swiss Machine**» (24')

Ingelera / Azpidatziak: euskara



ALEX TXIKON

Neguko espedizioak Karakorumen

«**Next Time Inshallah**» (30')

«**2012 espedizioa**» (20')